# 2019ko bigarren lauhileko laburpena- RASFF (pentsuak)

**DESKARGATU PDF**

2019ko bigarren lauhileko honetan, animalien elikagaiei buruzko
**106 jakinarazpen**
egin dira. Horietatik
**22 alertak izan dira, 57 informazio-jakinarazpenak eta 27 mugan egin diren ukapenak**
.

Egindako kontrol motari dagokionez,
**34**
jakinarazpen
**Mugako Ikuskapen Postuek (MIP)**
egin dituzte;
**44**
, berriz, pentsuen ekoizpen-kateko zenbait arlotan egindako
**kontrol ofizialek; 24, autokontroletan detektatu dira**
eta industriak berak egin ditu;
**eta**
, azkenik,
**4, bezeroen kexek eragin dituzte**
.

Produktuen arabera, lehengaiei dagozkie jasotako jakinarazpenen % 50, laguntza-animalientzako pentsu eta produktuei % 33, loditzeko animalientzako pentsu konposatuei % 8 eta gehigarri eta aurre-nahasketei % 9.

Jakinarazpenetan zerikusia izan duten produktuei dagokienez, honako lehengai hauek nabarmendu dira, hurrenkera honetan:
**kakahueteak (14), arrain-irina (12), maskotentzako pentsuak (12), txakurrentzako mastekagarriak (9), koltza-produktuak (9) eta soja-produktuak (7)**
.

| **Txostena –bigarren lauhileko laburpena 2019 RASFF (pentsuak)** |
|---|

**ELIKA**
. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .
**berri@elika.eus**

Close
**Necessary**
Always Enabled